

FRACKING PATAGONIA (40:00)

Argentinaraino heldu da hidrokarbuero ez konbentzionalen sukarra. Bien bitartean, Frantzian, herritarren mobilizazio handi bati esker, haustura hidraulikoa legez debekatzeko lortu zen, 2011n. Ondorioz, Montélimarrek Totali egindako lagapena atzera bota zuten. Baina enpresa hori izango da gas eta petrolio ez konbentzionalak ustiatuko dituen Europako eta mundu osoko beste herrialde batzuetan; izan ere, Argentinako gas-operadoreetan bigarrena da dagoeneko, Patagoniako Neuquén probintzian, babestutako eremu natural batean, eskistogasa erazteko baimenak beste transnazional handi batzuen aurretik eskuratu ondoren. Vaca Muertako harroak 30.000 km²-ko azalera du, eta bertan Total, Chevron, YPF, Shell eta Apache enpresek baimenak lortu dituzte. Hidrokarbuero ustiagarri ez konbentzionalen erreserbei dagokienez, Argentina hirugarrena da, mundu-mailan. Petrolioaren ustiapen konbentzionalak hainbat hamarkadatan eragindako inpaktuak pairatu dituzten komunitateak -bereziki, Maputxeak eta nekazariak- atzerriko petrolio-enpresa handien eta YPF *birnacionalizatuaren* setioa pairatzen ari dira orain: lurra eskuratzeko, errepresioa eta abar. Gobernuak baiezkoa eman zien enpresei, komunitatei kontsultatu gabe. Hasia da erresistentzia...